

**BERPIZTU PROGRAMA
PROGRAMA DE REACTIVACIÓN ECONÓMICA Y DEL EMPLEO**

2020-09-29 Vitoria-Gasteiz 29-09-2020

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari***1.- SARRERA**

Egun on, gaur Berpiztu Programaren oinarriak aurkezten ditugu.

Helburu jakin bat partekatzen dugu: ekonomia suspertzea eta, honen bidez, galdutako enplegu guztia berreskuratzea eta enplegu aukera berriak sortzen laguntzea.

Programa hau Gobernu Akordioan jasotzen den ekimena da.

Premiaz jarduteko premiari erantzuten dio, Euskadiren ekonomia berpiztea, minutu bat galdu gabe.

Iraganean beste krisi batzuk ezagutu ditugu: 2008ko finantza-krisi globala bete bete bizitzea egokitu zitzaigun. Altxatu egin ginen eta indartsuago atera ginen. Orain mundu mailako osasun-krisi batean gaude eta, horrek, ondorio ekonomiko larriak ditu.

Programa hau da berriro altxatzeko martxan jarri behar dugun tresna.

2.-GALDUTAKO ENPLEGUA BERRESKURATZEA

Covid-eko pandemiaren krisi bete, egoera oso larria zenean, Mahai sozioekonomikoan zera adierazi nuen: "Behar den guztia egingo dugu ahalik eta enplegu gehien mantentzeko eta galdutako enplegu guztia berreskuratzeke".

Aurreko legegintzaldian asmo handiko helburua jarri genuen: "Langabezia % 10etik behera jaistea". Helburu hori, denon arteko lanari esker, lortu genuen.

Orain, osasun krisiak aurrekaririk gabeko krisi ekonomikoa eragin du. Ezagutzen ari gara Barne Produktu Gordinaren jaitsiera ezezagunak. Krisi honek eragin handia du enpleguan, batez ere, oraindik ERTE egoeran dauden milaka eta milaka langileengan.

Gure helburua, hain zuzen ere, berbera da legealdi honetarako: langabezia % 10etik behera kokatzea.

Helburu hori denok batera lan egiteko gai bagara bakarrik lor daiteke. Hori da auzolana.

3.-HIRU TRANTSIZIO.

Pandemia trantsizio-une erabakigarri batean gertatu da. Ez bakarrik Euskadirentzat, baita Europarentzat eta munduarentzat ere. Trantsizioa globala da.

Ziklo-aldaketa baten aurrean gaude. Hamarkada oso bat markatuko duen etapa baten aurrean.

Hiru trantsizio hauetara egokitzeko eta erresilientzia lortzeko dugun gaitasunaren araberakoa izango da gure eta hurrengo belaunaldiaren etorkizuna.

Hau ez da beste legegintzaldi bat. Birmoldatu, Berritu eta Berrasmatu egin behar dugu.

Euskadi digitalagoa, Euskadi berdeagoa eta Euskadi inklusiboagoa bultzatzea dagokigu.

Berpiztu Programa hau konpromiso bat da, akuilu bat da, hiru trantsizio horiei erantzuteko.

4.-FORTALEZAS

No partimos de cero. Euskadi dispone de fortalezas y activo propios para afrontar esta Reactivación económica y del empleo con garantías.

Disponemos de un Concierto Económico que nos permite una autonomía financiera y una capacidad de endeudamiento suficiente para compensar la caída de la recaudación fiscal.

Contamos con la experiencia y el aval de haber logrado superar las crisis anteriores.

Somos un País con una larga historia de colaboración público-privada y de trabajo institucional compartido.

Tenemos el activo de una industria saneada, competitiva, internacionalizada e innovadora con una potente Red de Ciencia, Tecnología e Innovación.

Contamos, sobre todo, con un Gobierno sólido, con mayoría suficiente para garantizar un horizonte de certidumbre presupuestaria que permite poner en marcha este Programa de Reactivación.

5.-UNA ESTRATEGIA GLOBAL DE PAÍS.

El Programa de Reactivación económica y del empleo tiene como objetivo incentivar el Crecimiento Sostenible y se enmarca en una Estrategia Global de Desarrollo Humano Sostenible.

Contamos con una Estrategia de País.

Nuestro modelo aúna el Crecimiento Sostenible y el Desarrollo Humano. Son las dos caras de la misma moneda.

La Estrategia de Desarrollo Humano Sostenible estructura y da respuesta a todo el Programa de Gobierno de esta legislatura.

6.-EL PROGRAMA DE REACTIVACIÓN.

Este Programa de Reactivación económica y del empleo se enmarca en el ámbito del Crecimiento Sostenible, uno de los ejes de actuación fundamentales de la Unión Europea.

Está alineado con el Programa europeo “Next Generation” a través de sus dos ejes de actuación:

- Eje de Reactivación Económica alineado con el mecanismo europeo de Recuperación y Resiliencia; y
- Eje de Creación de Empleo alineado con el programa React-Europe de cohesión social.

7.-GARAPEN JASANGARRIAREN HELBURUEKIN BAT EGITEN DUEN PROGRAMA

Berpiztu Programa, Gobernu Programaren gainerakoa bezala, Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko 17 Helburuekin eta 2030 Agendarekin bat dator.

Bereziki bat dator energia- eta ingurumen-trantsizioarekin lotutako helburuekin. Baita ere industria aurreratu eta lehiakorrek, berrikuntzarekin, iraunkortasunarekin eta gizarte-kohesioarekin.

8.-JARDUTEKO BI ARDATZ

Lehenengo ardatza Ekonomia suspertzea da.

Ardatz hau enpleguaren sorrera sustatzeko palanka da. Ekonomia suspertu gabe, ezin izango da enplegua berreskuratu.

Sei lan eremu lehenetsiko ditugu:

- Inbertsio publikoa;
- Ikerketa eta eraldaketa digitala;
- Industria aurreratua eta nazioartekotzea;
- Trantsizio energetikoa eta ingurumenekoa;
- Elikagaien industria; eta
- Kultura- eta sormen-zerbitzuak eta –industriak.

Bigarren ardatza enplegua sortzea da.

Hau da, enpleguan eragin zuzena duten programak garatzea.

Sei lan eremu lehenetsiko ditugu:

- Ekintzailtza, Mikroekintzailtza eta Enpresa berriak;
- Enplegurako prestakuntza eta Prestakuntza duala;
- Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak;
- Renove planak eta Eraikuntza birgaitzea;
- Lan-eskaintza publikoak; eta
- Gazte enplegua sustatzeko Txoke-plana.

9.-ZEHARKAKO EREMUA: ENPLEGUAREN KALITATEA HOBETZEA

Enpleguaren kalitatea hobetzeko programa eta pizgarri hauek sustatuko ditugu:

- Soldata-arrakala murriztea;
- Prekarietatea murriztea eta Kontratazio mugagabea sustatzea;
- Gizarte Segurantzaren babesa handitzea eta Istripu-tasa murriztea;
- Lan-ikuskaritza indartzea;
- Lana eta familia bateragarri egitea sustatzea;
- Eredu inklusibo parte-hartzaile berria bultzatzea; eta
- Elkarrizketa Soziala eta Lan Harremanen Esparrua indartzea.

10.-AURREKONTU-INBERTSIOA

Berpiztu Programa aurrera eramateko, 13.250 milioi euroko aurrekontu-inbertsioa bermatuko dugu 2020-2024 aldian.

11.- HELBURU NAGUSIAK.

Hauek dira lau urteetan lortu nahi ditugun helburuak:

- 135.000 lanpostu sustatu;
- 6.000 enpresa eta mikroenpresa berri sortzen lagundu;
- Ikerketa eta Garapeneko 1.000 proiektu berri sustatu;
- 10.000 industria-enpresei lagundu;
- 4.000 industriaren eta zerbitzu aurreratuen balio erantsia handitu;
- 100 elikagai-industriaren balio erantsia handitu; eta
- 1.400 merkataritzaren, ostalaritzaren eta turismoaren balio erantsia handitu.

12.-ERAKUNDEEN LANKIDETZARAKO ETA ERAGILE EKONOMIKO ETA SOZIALEN EKARPENETARAKO PROGRAMA IREKIA.

Berpiztu Programa irekita dago eta hauek izango dira hurrengo urratsak:

Lehenik eta behin, Foru-aldundiekin eta EUDELekin oinarriak alderatzea.

Honekin batera, eragile ekonomiko eta sozialekin alderatzea. Horretarako

“Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren” eta “Mahai sozioekonomikoaren”

ekarpenak jasoko ditugu:

- Sindikatuak eta enpresak;
- Kooperatibak;
- Merkataritza-ganberak;
- Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea; edo
- Elkargi.

Ekarpen horiek jaso ondoren behin betiko dokumentua adostuko dugu eta urria amaierako Berpiztu Programa Gobernu Kontseiluan onartuko dugu.